


Konfinamendu egoera dela eta, Gazte Bidean zerbitzua online arituko da.

Nola? Gure sare sozialen bidez:
Facebook, Instagram eta WhatsApp.

Zeini zuzendua atal hau ? 7-12 urte bitarteko haurrak,

Noiz? Asteazkenetik igandera,
16:30tatik 20:30ra.



<https://www.facebook.com/gazte.bidean>



<https://www.instagram.com/gaztebidean/>



+34 609 70 27 08



gaztebidean@gmail.com

SUKALDARITZA:


Martxoak 26. 16:30.

Gaurkoan ...

Etxean gaude, bai, ezin kalera irten, baina udaberria iritsi berri da eta gaur eguzkia dugu guri begira!! Horregatik, etxean egindako izozki osasuntsu batzuen errezeta ekarri dizuegu gaur. Probatu eta on egin!!!!

<https://www.youtube.com/watch?v=XyE6xuXXXbQ>

Eginez gero, ez ahaztu zure izozkien argazkiak gure FB eta Instagramera bidaltzea, gustura partekatuko ditugu!



JOLASAK:

Martxoak 26, 17:30.


Gaurkoan ...

Bazkalostean aritzeko, mota askotariko jolasak dituen atari hau ekartzen dizuegu gaur.

Damak, puzzleak, partxisa, sudokuak...

<http://www.ludoteka.com/jokatu>

Asko entrenatuz gero, berrogeialdiaren bueltan
Gazte Bidean lokalean primeran arituko zarete!



ESKULANAK:


Martxoak 26, 18:30.

Gaurkoan ...

Pantailen aurrean egoteaz aspertuta bazaude, gaur eskulan dibertigarri hau ekarri dizugu: zuk piezak prestatu behar dituzu eta, prest edukitzean, animatu zaitez batetik bestera saltoka ibiltzeko jolasean!

<https://www.youtube.com/watch?v=wWSrSX7RYN8>

Gustura asko jasoko ditugu zuen bideoak jolasean ☺



KIROLAK- ERRONKAK:

Martxoak 26, 19:30.

Gaurkoan ...

Eta eguna ondo amaitzeko, zer iruditzen kirol piska bat egiten badugu? Hona hemen guztiok ezagutzen dugun abestiaren dantza. Goazen Aldapan Gora!!

<https://www.youtube.com/watch?v=CVsdY1Ksz64>

